

Desobedientzia zibila indar hartzen

Istanbulgo Taksim plazan sei orduz zutik egon zen turkiar batek ehunka lagun inspiratu ditu. Biolentziaz beteriko egunen ostean, jendea kalean zutik tinko geratzen hasi da Gobernuaren aurkako protesta gisa.

| LANDER ARBELAITZ |

ERDEM GUNDUZ izeneko artistak ekainaren 17an protesta egiteko zutik egotea erabaki zuen. Polizia etorri zitzaion, 'katxeatu' egin zuten, ez zen mugitu, grabatuta geratu zen unea (ikus bideoa beheko koadroko kodea mugikorrarekin eskaneatuz), beste sei orduz geratu zen bertan, bideoak sarera salto egin zuen, eta gau hartan bertan 300 bat pertsonak egin zuten bat berarekin. Goizaldeko 2:00etan poliziak atxilotu egin zituen mugitu nahi ez zutenak. Hurrengo egunean ehunka izan ziren Gunduzek inspiratuta kalera atera eta zutik geratzea erabaki zutenak.

Gunduzen hitzak jaso dituzte BBCn. Protesta egiteko geratzen zitzaion modu bakarra zutik jartzea eta bertan tinko eustea dela dio.

Turkiako protestetan ere sare sozialek garrantzi handia izan dute, batez ere, informazio zuzena eskuratu nahi zuten herritarrek hori lortzeko modua izan dutelako. Info7 irratiko *Mundurama* saioan gaiari buruz hitz egin zuten: elkarriketatuetako batek azaldu zuen herrialdeko hedabide nagusiek



MARCO LONGARI/AFP/GETTY IMAGES

Erdem Gunduz koreografoak azaldu du protesta egiteko geratzen zaion modu bakarra zutik geldi egotea dela.

protestak zentsuratu zituztela. Gezi parkea Gobernuari desafio egiten ari zen jendez beteta zegoen unean, Turkiako CNN katean pinginoei buruzko dokumental bat botatzen ari zirela, eta hala, pinginoak zentsuraren sinbolo bihurtu direla.

Twitterren #Duranadam (zutik dagoen gizona) eta #Durankadin (zutik den emakumea) etiketak erabiltzen ari dira. Albiste hau idazteko orduan, Turkiako leku ugarian jendea zutik protestan ari da.

Protesta hori kontraste handia da orain arteko poliziaren jarrerarekin alderatuta —negar-gasak, tiroak eta tankeetatik ura botatzen ibili dira—, baita poliziari erantzun

gisa bortizkeria erabili duten manifestarien jarrerarekin ere.

The Guardian egunkarian argitaraturiko artikuluko batean, Richard Seymour egileak ondorengo analisia egin du: "Erresistentzia pasiboa ez da soilik neurri sinbolikoa, boterea nahastu egiten du eta bere kalkuluak oker egitera eramán. (...) Gunduzen protestak bi alde ditu, aurre egiten dio botereari eta aldi berean galdera planteatu: Jo egin behar dute? Zergatik? Bera bertan zutik besterik ez dagoen pertsona da. Beraz, bakarrik utzi? Orduan irabazi egiten du, ezta?" ■

argia.com Turkiako azken gertaeren eta herrialdearen egoeraren inguruko informazioa Argia.com/turkia kanalean aurkituko duzu.



Poliziaren aurrean duin



Youtuben ikus daiteke Erdem Gunduz zutik eta tinko, poliziak bere gauzak erregistrazten dituen bitartean.